

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak arreta eskatu die gidariei astearte gauerako elur-maila jaitsiko dela egindako aurreikuspenaren aurrean

400 metrotatik gora elurteak izan daitezke eta hotzak eta elurrak ostiralera arte jarraituko duela iragarri da

Lunes, 11 de marzo de 2013

Nafarroako Gobernuak gidariei arreta berezia eskatu die Foru Komunitateko errepideetatik doazenean, astearte honetako azken ordutik aurrera elur-maila jaitsiko dela egindako [aurreikuspenaren](#) aurrean.

AEMETen arabera, elur-maila hurrengo gauean 1.000 metrotatik 400era jaitsiko da eta mendialdeko gune batzuetan izotz handia bota dezake. Arrazoi hori dela eta, Nafarroa guztian [alerta horia](#) ezarri da elurteengatik, eta elurte horiek 2 cm-koak izan daitezke Erriberan eta 15 cm-koak Pirinioetan. Halaber, hotzak eta elurrak ostiralera arte jarraituko duela iragarri da.

www.incidenciascarreteras.navarra.es webgunean eta 848 423 500 telefono-zenbakian Foru Komunitateko errepideen egoerari buruzko informazio eguneratua eskainiko da. Nafarroatik at joateko, komeni da Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren webgunea kontsultatzea (www.dgt.es) eta haren 011 informaziorako telefonoa.

Nafarroako Gobernuaren gomendioak

Nafarroako Gobernuak herritarrei gogorarazi die beharrezkoa dela trafikoko agintarien aginduei kasu egitea eta baita galtzadan izotza izan daitekeela ohartarazten duten seinaleei ere. Gainera, gidariei eskatu die elurra kentzeko makinak ez ditzatela aurreratu, ibilgailua ez dezatela galtzadan gelditu eta ibilgailua soilik errepidetik at aparka dezatela.

Gainera, gogorra ekarri du hobe dela egunez bidaiatzea errepide nagusietatik edo bide azkarretatik. Pneumatikoak, balaztak, bateria, izotz-kontrakoa, argiak, hozgarria eta berogailua berraztertzea ere garrantzitsua da. Gomendagarria da ere, erregai-tanga betetzea eta 100 kilometroz behin erregaia sartzeari, berotzeko arropa eramatea beti, neguko kateak edo pneumatikoak izatea, telefono mugikorra kargagailuarekin eta alkohola, eta baita haizetakotik izotza kentzen saiatzeko arraspa bat ere.